

"Pausu batek beste bat gordetzen du.
Baina, oreka
bi pausuren joko baina gehiago da.
Gaur *han* dago zure eguzkia."

ILARGIAREN ARGIA ILUN

Euria ari zuen. Eta haizea itsasaldetik. Euria eta haizea, Bilbon ohikoa denez. Lau tximista kontatu zituen bata bestearen atzetik, urruti, baina, begiak ikaraz ixtera behartzeko bezain gertu. Eta trumoi hotsa. Ozena, baina, Aitziberrek ez zuen eskuak belarrietara eramateko imintziorik egin. Trumoiak ez zuten nonbait tximistek adina beldurtzen. Ordu laurden zeraman kaleak nola bete eta husten ziren begira. Hamasei minutu pasatxo logelako leiho zikinetatik zerbaiti so. Ez zitzaion axola; bazekien ikasle pisuek leiho zikinak izan behar dituztela ikasle pisu izango badira. Hamazazpi minutu pentsamendu berean katcatuta, antzeko ideiei lotuta, lanbroari arnas pixka bat lapurtu nahian. Zergatik ez? Ez zirudien hain zaila begiak itxi eta hankak zabaltzea. Gertuago egin zuen azken tximistak argi, eta oraingoan, ezker eskua eraman zuen begietara gehiegizko distira gaiztoak min eman balio bezala. Masailek somatu gabeko malkoak ukitu zituzten behar urduriek. Hogei minutu zeramatzan negarrez. Euria ari zuen kanpoan eta barruan. Bere begietan.

Kontua ez zen emakume galdua izatea. Ez, kontua ez da emakume galdua izatea, esaten zion behin eta berriro bere buruari, errepikatuz ideiak indarra hartuko zuelakoan. Malkoek lausotu arren, inoiz baino garbiago ikusten zuen etxe aurreko argien dantzaldia. Ordubete inguru zeraman tabernak irekita. Ordubete inguruko argiak ñirñirka. Gorri, berde eta urdina. Pub. Urtebetez txirikordatua zuen bere begirada errezel haien artean, baina, ordura arte sekula ez zen jarri taberna hartara sartzen ziren bezeroei begira, bertan lan egiten zuten emakumeei. Ilunabar bihurri hartan, ordea, ordu laurden zeraman noizean behin irekitzen zen ateari begirik kendu gabe. Ezker-eskuin begirada azkar bat bota ostean, bi emakume sartu ziren denbora tarte laburrean, euriak beldurtzen ez zituen belauak agerian. Bi emakume. Bi emagalduta. Ez, kontua

ez zen emakume galdua izatea. Berak ez zituen balduta ikusi; bati irribarrea ere bereizi zion ezpain artean.

Dirua behar zuen. Bazekien gurasoak larri iristen zirela hilabete bukaerara. Ikasle-pisuaren alokairua, sortzen ziren kostuak, autobusaren gastuak,... Gurasoek sekula ez liokete ikasketak uzteko eskatutako, jateari utzi behar bazioten ere. Soziologia. Beti izan zuen garbi. Gizartea aztertu nahi zuen begiak ongi kizkurtuta, erantzunak bilatu oraindik egin gabeko galderei. Eraitza onekin bukatu zuen lehen kurtsoa, eta orain, bigarrena hasita, diruarena zen gaintzeko zailen ikusten zuen ikasgaia. Ez, gurasoei ez zien diru gehiago eskatuko, hamasei urteko Mikel anaia gazteak fisikari izan nahi zuen, eta fisikariek ere ordaindu behar izaten dituzte ikasle-pisuetako alokairuak, autobusetako joan-etorriak....Mikelek ere behar zuen bere etorkizuna, bazuen Newton-en sagarrarekin jolasean aritzeko eskubidea. Horregatik zeraman ordu laurden negarrez, itsutzen zuten argi haiei begira, begiak itxi eta hankak zabaltzea hain zaila ez zela sinetsi nahian. Ez ziren baldutako emakumeak. Ez, kontua ez zen emakume galdua izatea. Ordu laurden pasatxo, hartutako erabakiari negarrez. Dirua behar zuen.

Ohearen ertz guztiak miatu zituen loaren bila, baina, gau hartan ez zuen begiak biltzea lortu. Sabaira begira amestu zuen etorkizuna, zuri-beltzik gabeko kolore grisetan nahasia, eta beldurra sentitu zuen iratzargailuak belarrira xuxurlatu zizkion mamuak entzutean. Goizean, inoiz baino goizago iritsi zen unibertsitatara, inor baino lehenago; eguzkia aho-zabalka harrapatu zuen eraikuntzen atzeko ohatzean etzanda.

-Zer da prostituzioa? –irakaslearen galderak ikasgelako hormetara egin zuen jauzi, bere biluztasuna estaliko zuen erantzunaren bila, baina, ahaleginean izoztu zitzaion asmoa.

Ikasleen begiek urduri egin zuten arbelerainoko bidea, irakaslearenekin topatu nahi ezta, erantzuna garesti baitzuten, lotsa merkeegi. PROSTITUZIOA. Arbelaren erdian letra larriz idatzia. Hura izango zen, beraz, landu beharreko hurrengo gaia.

-Bai, Aitziber? Zer da prostituzioa?

Harrituta begiratu zion Aitziberrek sabaira begira altxatua zuen hatz crakusleari, ezkutuko indar batek jaso izan balu bezala; arrotz zitzaion erantzuteko nahia. Ez zuen esatekorik; edo agian bai. Beharbada, bere aieru zalantzaz betea zen espero zitekeen erantzuna. Irakaslea zain zegoen, ikaskideak ere bai.

- Zera...- masailak gorritzen somatu zituen, ez zitzaion erraza gertatuko lotsaren arrastoak erretzen zizkion sua itzaltzea.- Zera... . Historiako lanbiderik...

- Prostituzioa emakumeak bere gorputza saltzean datza! Emakumeek euren burua galbidera eramateko moduan.- Bi eserleku aurrerago esertzen zen mutil harroxkoak bota zuen bere epaia. Ikasgela osoa erakarri zuen bere menera, baita irakaslea bera ere. Azkar ahaztu zituen Aitziberren hitz totelak, eta honek neska lasaiarazi arren, minduta utzi zuen, haserre, ikaskideak esandakoengatik. *Gorputza saldu, burua galdu...* Akaso, arrazoi izango zuen.

- Prostituzioa: pertsona batek diru truke hainbat pertsonarekin sexu-harremanak izatea- irakurri zuen irakasleak esku artean heltzen zuen hiztegitik. Eztabaidak luze jo zezakeen, baina, ikasleen nagitasunak, beldurrak, lotsak eta ezjakintasunak ez zioten esku ireki hari hatz berriak luzatzeko aukerarik eman. Eta irakasleak ez zuen bere burua bakarrizketa sakon batean galtzeko asmorik, ez zuen bere jarduna oraindik lo zantzuak zituzten begi haien iratzargailu bihurtu nahi. Gaiak beste trataera bat merezi zuen. Egingo zuen beste ahalegin bat. Hurrengo egunean; bi egunera gehienara ere.

Dirua, harremanak, trukea, sexua... Esnearekin batera irentsi nahi zituen.

Aitziberrek irakasleak aurreko egunean hiztegitik ateratako hitz haiek. Esne epelarekin batera, ogi xigortu berrian zapal-zapal igurtzita. Ez zitzaion erraza gertatzen ari, apurrak kontrako eztarrira joango zitzaizkion beldurrez ari zen irakasleak esanak ahoratzen.

- Haizan Aitziber, zer dun? Ez daukan batere aurpegi onik... ondo lo egin al dun? Edo otsoa bisita izan dun gauerdian? Ilargi betea zegon egun hauetan!- Aitziber ordura arte ez zen Maite pisukidearen presentziaz ohartu. Hura zen hura neska, goizetan ere umore onean! Goizetan batez ere.

- Ez... zera... bai... zera... ez zekinat! – Apalago ekin zion berriro, bat-bateko erantzun hartaz damaturik. – Hi Maite, hik zer pentsatzen dun maitasunik gabeko sexuaz?

- Et, et, et Aitziber, ez hadi hasi filosofia sakonekin. Ba al dakin zein ordutan bizi garen? Goizeko zortziak laurden gutxi ditun! Eguzkiari galdetu diezaioken nahi badun, ni baino esnatuago egongo dun eta! Gauean hitz egingo dinagu. Sexua mmmm...- begi bat itxi zion pisukideari, ondoko begia zabalik mantentzeko ahalegin berezia eginez. Gorritu egin zen Aitziber, bazekien gauean ez zela berriro gai hura mahairatzen ausartuko. Eta nahi zuen, behar zuen Maitek prostituzioaz zuen iritzia.

- Bai, baina, esaniezadan... zer pentsatzen dun? Zintzoa al dun maitasunik gabeko sexua?

- Hemen ezer ez dun zintzoa Aitziber! Baina, zilegi dun bihotzik gabeko sexua. Noski! Gora askatasun sexuala!- Komuneko atearen atzean ezkutatu ziren oihu haren harridura ikurrak.

Ez, Maiteri ez zion bere asmoen berri emango, ez zion etxe pareko tabernaz hitz

egingo. Prostituzioaz. Maitek ez lioke lagunduko, pentsatzen jarri gabe aurrera bultzatuko luke. Ausartegia zen, beti egiten zuen aurrera, atzera begiratu beharrik gabe. Zergatik ez heldu orduan pisukidearen indarrari? Fincan, ez al zen hori behar zuena? Bultzada gogor bat, damu guztiak uxatuko zizkiona... Agian bai, hitz egin behar luke berarekin, beharbada Maite izan zitekeen behar zuen makulua. Baina, ez ote zegoen beste biderik? Prostituzioa... Eta zergatik baztertu aukera hura? Zergatik horrenbeste zalantza, beldur? Azken batean, historiako lanbiderik zaharrena zen hura, munduan ehunka, milaka, milioika emakumek bizitza aurrera ateratzeko erabili zutena. Edo gozatzeko...? Horrek ez zion axola! Berak dirua behar zuen, ez zuen gustuz egingo. Zer zuen hark txarretik? Milioika emakume. Bera bat gehiago izango zen. Gau bakarrecan hilabeteko alokairua ordaintzeko adina diru irabaz zezakeen. Bai, dudarik gabe hura zen amonaren etxerainoko biderik motzena. Otsa baino lehenago iritsi behar zuen; baina... aldapa pikocgia du bide laburrak. Bai, hanka arinak zituen. Gaztea zen. Gazteegia. Hemeretzi urte. Eta beldur zen. Aldapan gora abiatzerako aldapa hartan bertan amilduko ez ote zen.

Asteazken gauean deitzen zion Gorkak Bilbora. Asteazken bost egunetan laurogeita hamar kilometro tartean. Maitasunaren distantzia. Sei hilabeteko harremana. Mutil-laguna. Laguna bereziki. Maite zuen; izugarri maite zuen, eta batez ere, horregatik, laguna zelako. Edozeri buruz hitz egiten zuten: sentimenduez, zalantzez, etorkizunaz, politikaz, bizitako ametsez, gizarte arazoez... sexuaz. Askotan hitz egiten zuten sexuaz, baina, inoiz ez zieten beren gorputzei elkarrizketarako betarik eman. Muxuak, laztanak, igurtziak... solasaldi txikiak bai, baina, elkarrizketa sakonik... sekula ez zuten larrutan egin. Birjina zen Aitziber. Federik ez zuen birjina atea. Ez zuen presarik. Beti pentsatu izan zuen bazuela denbora hau eta hura dastatzeko, Gorkarekin batera hegan egiten ikasteko. Hegan egitearen parekoa baitzen, esaten zutenez. Beti izango zuen denbora. Orain, ordea, beranduegi zen. Berriro eman zion negarrari, azken egun haietan ohikoa zuenez. Lehertzeaz zuen burua. Nola galduko zuen birjintasuna ezezagun baten hanka artean? Non ahaztu zituen garai bateko fantasia eder haiek argituko zizkion kandelak?

Jo eta jo ari zen sakelako telefonoa. Jo eta jo bere malkoen aurka...

- Gabon printzesa...

- Kaixo Gorka, zer moduz?

- Ongi, oso ongi, primeran. Gaur arratsaldean mendian izan naiz eta kantari hurbildu zaidan zozo bati zenbat maite zaitudan kontatu diot. Jeloskor ere jarri zait nire begietan horrenbesteko maitasuna irakurri duenean. Ei, ei... ez ezazu negarrik egin, zozoarentzat ere maitasun pixka bat gorde dut eta!

- ...

- ... zergatik egiten duzu negar?

- ... aizu Gorka. Zer da leialtasuna?

- Leialtasuna? ... pertsona leiala, pertsona zintzoa, garbia...

- Bai, baina, ... ez. Fideltasunaz ari naiz. Non dago fideltasunaren marra? Erruduna al da begiak itxita dituen bihotza?

- Ez dizut ulertzen Aitziber, Zerbait aitortu nahi al didazu ?

- ...

Ordu erdiz jardun zuten hizketan. Ordu erdi luzez, baina, ez zion bere asmoen berri eman. Berak ere asko maite zuela esan zion, berak ere hitz egiten zuela zozoekin, Bilbo inguruan asko ikusten ez bazituen ere. Eta musu bat bidaltzen ziola. Bi musu. Txokolatzekoak.

Mingain eta guzti. Baina, bere zalantza eta asmorik ez. Zer esan zion? Ez zela neska fidela? Beren maitasunari iruzur egitekotan zela?

Negar egin zion itzalitako mugikorrari. Oihu egin zion. Garrasi. Gorka zure neska laguna prostituta bat izango da. Ulertzen al duzu? Puta bat! Ez, ez zuen ulertuko...

Luze joan zitzaion astea. Edo motz. Ez zuen ezer egin azken bost egun haietan. Ideia bakarraren bueltan aztoratutako itsasoa baretzen saiatu. Eta ez zekien ez ote zuen gehiago haserretu. Olatuak gero eta altuago ikusten zituen, gero eta zakarrago. Iritsi zen ostirala, eta han zegoen berriro motxila prestatzen. Etxera itzultzeko. Astebururo bezala. Ez zuen Gorkarekin egoteko adorerik, baina, desiratzen zegoen ama ikusteko, amaren begiekin aurkitu nahi zuen bere zalantza guztien korapiloa askatuko zuen giltza. Ez zion prostituzioaz hitz egingo, baina, bere itzala sentitu nahi zuen, altzoa, babesia. Zer pentsatuko zuten gurasoek? Ihesian ibiltzen ziren aitaren begiez oroitu zen. Mahaian inoiz ez zuten sexu-konturik mintzagai izaten. Ama gorritu egiten zen inoiz mutil kontuen inguruan galdetzen bazion, eta aita ere behin baino gehiagotan harrapatu izan zuen sukaldeko atearen ertzetik zelatan. Bekatua zen aitarentzat hura guztia. Sexua. Nork asmatu ote zuen !

Amaren iritzia nahi zuen. Behar zuen. Hurbildu zitekeen, baina, luzea egiten zitzaion bien arteko distantzia. *“Ama zer iruditzen zaizu gorputza saltzen hasten banaiz?”*, *“Diru-truke sexu harremanak izaten badituz?”*, *“Prostituta egiten badut nire burua?”*...

- Ama...

- Bai?

- ...zera... zera... ez, ezer ez... polita ikusten al nauzu ?...

Nola ez zuen ba ama batek bere alaba polita ikusiko!

Amonari. Amonari kontatuko lioke gustura guztia. Amona beti izan zen gorria -berak esaten zuen bezala-, aurrerakoia, ulerkorra. Baina, memoriari soilik hitz egin ziezaiokeen, urtebete atzera haizeak beso artetik eraman zionetik ez baitzuen bere ahots ezirik aditu, xuxurla isilak askotan entzun bazizkion ere. Minbizi madarikatua. Bai, amonak aholku zintzoak emango lizkioke, haginak erakusteko, bizitzari gogor atximur egiteko esango lioke. Bai, astelchenean bertan joango zen "Ilargira". Kontua ez zen emakume galdua izatea, eta pausu hura eman ezcan etorkizunak galduko zuen.

...

Akaso, titi txikiegiak ditu. Lotsatiegiak. Emagalduek beti irudikatu izan ditu bular oparoekin, izter mamitsuekin. Ez daki zergatik. Adinean sartutako gizonen agian ez zaizkie bere ezpain oraindik heltzen hasi gabekak gustatuko. Zin egingo luke umetan edukitzen den izozki zaporea dutela oraindik bereak. Adinean sartutako gizonak... ilea urdintzen hasiak... azalak itotako zimurrak... kurruska egiten duten sabel irtenak... Nora doa? Ez du ispilutik oihuka ari zaion begirada margotua ezagutzen.

- Eman iezairen kolore gehiago masailei- bai, kontatu egin dio Maiteri azkenean. Eta hor ari zaio aurpegia, apaindu beharrean mozorrotzen. Errealitateari ezkututzen.- Ez daukan gona motzagorik? Honekin erraiak ere ikusten zaizkidan!- bai, kontatu egin dio Maiteri azkenean. Eta ez da harritu, ez du aurpegi arrarorik jarri. Oso ongi iruditzen zaiola. Gogorra izango dela lehen gaua, baina, ze demontre! Gozatzeko! Aitziberrek badaki txantxetan esan diola azken hau, baina, eskertzen dizkio animoak.

- Listo! Denek nahiko ditzen hirekin!

Musu bat eman, eta bere logelara joan da Maite salto txikika. Salto txikika. Beti bezala. Bizitza, lorez lore tximeleten antzera ibiltzea balitz bezala. Zorte on! Esan dio. Zortea, zertarako?

Dardarka zabaldu du etxeko atea, baina, ez du ixteko adorerik. Ezin du iragana lurperatu, etorkizuna urpean ito. Bultza egin diote, baina, ezin du...

Masailtako gorria begietako beltzaz zikindu zaio. Negarrez ari da. Beste behin. Berriro. Ezin du...

Datorren astean berriro eskatuko dio Maiteri apaintzen laguntzeko. Gaur nekatuegi dago. Nahastuegi aurrera egiteko. Astebete. Gehiago ez. Dirua behar du. Lchenbailehen.

EZIZENA: POXPOLIN